

# Gure alkarteak banketxeagaz be, euskaraz

Elkarte eta enpresetan euskararen diagnostikoa egiterakoan, konturatu ginen, horietako askok banketxeekin izaten zituzten harremanak gaztelaniaz zirela. Hori dela eta, banketxeetara jo genuen haien euskarazko zerbitzuaren berri izateko eta, ondoren, elkarte eta enpresei jarraian duzuen gutuna bidali genien, banketxeetara joaten direnean, euskarazko zerbitzua eskatzeko.

*Geurien be bai* hitzarmenean dagozan banketxeek (Bankoa, BBK eta Euskadiko Kutxa) euskarazko zerbitzua eskaintzen dabe. Halanda ze, horreekaz be euskeraz egiteko aukerea daukazue. Zelan?

## Lau pausu euskerea gehiago erabilteko:



1. Gura badozu, **banketxeko beharginagaz be euskeraz** egin zeinke berba, harek be jakingo dau euskeraz, eta ederto ulertuko dozue alkar.

2. **Kutzazainean** dirua atara behar dozula? Hor be hizkuntzea aukeratu zeinke. Euskeraz daukazula? Ederto! Gaztelaniaz daukazula eta aldatu egin gura dozula? Makinan bertan daukazuz aukera guztiak eta, zalantzarik badaukazu, banketxean lagunduko deutsue.

3. Alkartera bidalitako **komunikazioak** be euskeraz irakurteko aukerea daukazu: Bankoak eta BBK-k euskeraz eta gaztelaniaz bialtzen dabez jakinarazpenak, publizidadea... Euskadiko Kutxaren kasuan, bezeroak aukeratu leike komunikazioetarako hizkuntzea. Horretarako, Euskadiko Kutxara bertara joan, eta aldatuko deutsue hizkuntzea, jadanik euskeraz jasoten ez badozu.



4. **Webguneko informazioa eta telebanka** euskeraz erabili ahal dozuz, gaztelaniaren besteko bermeagaz. Ez euki beldurrik, gura izan ezkerro, erraz-erraz aldatuko dozu hizkuntzea eta.

**Zalantza barik, banketxean be egin leiteke euskeraz!**

